

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

Zifrak hobetu arren, 2008tik urrun gaude

Langabezia

Zerbitzuen sektorea gorantz

Prekarietatea

Gazteen egoera prekarioa

Genero diskriminazioa


HEH Europako azken postuetan

Prezioak gora

BPGk handitzen jarraitzen du

Hileko puntako gaiaren laburpena


kWh-aren prezioa (2.500-5.000-ko kontsumoa)



Espainiar estatuko eskandalu elektrikoa

- Elektrizitatearen prezioa Espainian Europako altuenetakoa da.
- 4,6 milioi pertsonak pobrezia energetikoa pairatzen dute.
- Etxeek batez beste 745 euro gastatzen dituzte elektrizitatean. 2006ean gastua 457 eurokoa zen. Igoerak inflazioarena hirukoizten du, nahiz eta egun elektrizitate gutxiago kontsumitu etxe bakoitzeko.
- Lobby elektrikoa kexu da fakturan dagoen zerga kopuruagatik. Baina Espainia da EBko hirugarren herrialde garestiena zerga aurretik, eta zergak, gainera, txikiagoak dira. Are gehiago, tarifek gutxien kontsumitzen dutenak zigortzen dituzte.
- Konpainia elektrikoak oinarrizko beharren kontura aberasten dira eta kutxa publikoari behar baina gutxiago ordaintzen diote.

kWh-aren PREZIOA 2017an



KONTSUMO TARTEEN ARABERA

	<1.000	1.000-2.500	2.500-5.000	5.000-15.000	>15.000
Espainia	0,57	0,27	0,22	0,19	0,17
EB-28	0,33	0,23	0,21	0,19	0,18





Aurkibidea

EGOERAREN AZTERKETA

1. Zifrak hobetu arren, 2008tik urrun gaude 4
2. Langabezia 4
3. Zerbitzuen sektorea gorantz 5
4. Prekarietatea 6
5. Gazteen egoera prekarioa 7
6. Genero diskriminazioa 7
7. HEH Europako azken postuetan 7
8. Prezioak gora 8
9. BPGk handitzen jarraitzen du 9

HILAREN PUNTAKO GAIA:

- Argindarraren merkatua
elektrikaren negozioa 10**

ERABILITAKO SIGLAK

- HEH Hego Euskal Herria
EAE Euskal Autonomi Erkidegoa
EB Europako Batasuna
BPG Barne Produktu Gordina
BAI/EPA Biztanleria Aktiboaren Inkesta
Eustat Euskal Estatistika Institutua
EIN/INE Estatistika Institutu Nazionala
KPI Kontsumo Prezio Indizea

EGOERAREN A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoeraren azterketan aztertzen ditugun hainbat adierazle, hala nola, biztanleria aktiboa, enplegua, soldatapeko langileen zifrak, langabeziaren datuak eta abar hobetu egin dira azken urteetan. Hala ere, aurtengo zifrek adierazten dute hobekuntza horiek gero eta txikiagoak direla. Gaur egungo errealitatea krisi hasierakoa baino okerragoa da; aipaturiko adierazle horiek bilakaera positiboa izan duten arren, krisi aurreko egoeratik urrun jarraitzen dugu.

Baina aipatutakoa ez da arazo larriena, bai prekarietatea bai soldata baxuak eragiten duen eros ahalmen urria dira arazorik larrienak. Soldaten datuek azken hogeita hamar urteetako Barne Produktu Gordinaren pisurik txikiena izan dute 2017an. Gainera, enpresarien errentak %7,1 igo ziren bitartean, lan errentek ia erdia igo zuten, %3,8. Hortaz, egoera ez da saldu nahi diguten modukoa, aberastasunaren banaketa gero eta desberdintsuagoa da eta kapitalaren metaketa gero eta handiagoa.

** Txosten hau 2018ko urriaren 12an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

Manu Robles-Arangiz Institutua
www.mrafundazioa.eus
Twitter: @mrafundazioa

1. Zifrak hobetu arren, 2008tik urrun gaude

Azken urtean hainbat adierazleren balorazioa positiboa izan da, hain zuzen, biztanleria aktiboaren, enpleguaren eta soldatapeko langileen gorakada egon delako. Atal honetan ikusiko den moduan, egia da aipatutako adierazleen emaitzak hobetu direla, baina oraindik egoera oparo batera heltzeko asko falta da.

1.1.) Biztanleria aktiboa


2018ko bigarren hiruhilekoan 1.348.600 pertsonak osatu dute HEHko lan merkatua deritzona, biztanleria aktibo bezala ezagutzen dena: 315.300 Nafarroakoak eta 1.033.300 EAEkoak direlarik. Honek enplegua duten pertsonak eta eduki gabe, aktiboki bila dabilzanak barneratzen ditu. Aurtengo biztanleria aktibo kopurua pasa den urtekoa baino 18.300 handiagoa izan arren, 2008ko mailara heltzeko 48.000 pertsona falta dira.

1.2.) Enplegua ere gora

2018ko bigarren hiruhilekoan 1.212.700 pertsonak enplegua izan dute Hego Euskal Herrian EParen arabera (INEk egindako inkesta). Grafikoan ikusi daitekeen moduan, 2013 eta 2015 urteen artean zenbateko honek ez zuen izan aldaketa garrantzitsurik, baina 2016tik aurrera okupatu kopuruak nabarmen egin du gora. Okupatu zifrei erreparatuz gero, egoera positiboa dela ematen du; baina begirada 10 urte atzera botaz gero, errealitate hau ez da inola ere ematen duen modukoa. Krisia hasi aurretik, 1.315.900 okupatu zeuden, hau da, gaur egunean baino 100.000 pertsona inguru gehiago. Hortaz, zifrak hobetzen dauden arren, oso urruti jarraitzen dugu 2008tik.

2018an enplegua izan dutenen artean, 284.000 Nafarroakoak dira eta 928.700 EAEkoak. Lehen erki-degoan 4.300 okupatu gehiago daude pasa den urteko datuekin alderatuta, EAEn, aldiz, 25.300ean egin du gora zifra honek. Sexuari erreparatuz gero, desberdintasunak existitzen jarraitzen du, 581.500 dira emakumeak eta 631.300 gizonak.

HEHko enpleguaren estimazioaren bilakaera 2009-2018ko bigarren hiru hilekoan



Iturria: INE

1.3.) Soldatapeko langileak

Enplegua dutenen artean, 1.036.100 soldatapeko langileak dira, aurreko urtean baino 37.400 gehiago. Azken urteko joera, soldatapeko langileen gorakada nabarmena eta soldatapekoak ez diren okupatu murrizketa izan da, hain zuzen, 7.800 pertsona gutxiago daude. Soldatapekoetatik, 242.300 Nafarroakoak eta 793.800 EAEkoak dira.

Biztanleria okupatuaren %85,4 soldatapeko langileria da (gizonen %82,2 eta emakumeen %88,9). Kasu honetan Nafarroako eta EAEko zifrak oso antzekoak dira, bata %85,3, besteak %85,5.

2. Langabezia

Langabezia maila %10,1ean kokatu da 2018ko bigarren hiru hilabeteetan (%9,9 Nafarroan eta %10,1 EAEn). Langabezia tasak behera egin du aurreko urtearekiko puntu batean eta 2013ko marka gorenetik aldentzen da (orduan %17,5 izan baitzen).

Langabezi tasa aztertzeke orduan, bi datu desberdin ditugu, batetik INEk (Instituto Nacional de Estadística) emandako estimazioa eta bestetik SEPEk (Servicio Público de Empleo Estatal) erregistratutako datua daukagu.


INEk emandako datuei erreparatzen badiegu, 2018ko bigarren hiruhilekoan 135.800 lagun langabezian egon direla estimatzen du, aurreko urteko epealdi berean baino 11.500 gutxiago. Hego Euskal Herria osotasunean hartuz gero, langabezia datua beheranzkoa da, bai Nafarroan 1.700 langabe gutxiago (33.000) bai EAEn 9.800 gutxiago (104.500).

Erregistratutako langabeziaren zifrek adierazten dute 152.539 pertsona egon direla langabezian 2018ko ekainean. Beraz, aurreko urtearekin alderatuz 14.668 langabe gutxiago daude. Aipatzekoa da, EPAk eta



SEPEk ematen dituzten datuen arteko diferentzia handia dela, hain zuzen 16.739 langabe gehiago kontabilizatzen ditu SEPEk. Teorian aurkakoa gertatu beharko litzateke, inkestetan agertzen den zifra erregistroan agertutakoa baino handiagoa izan beharko litzateke.

Langabeziaren bilakaera 2009 eta 2018 artean



Iturria: INE, SEPE

Langabezian egon direnen %52,7ak (71.500 pertsonak) urtebete baino gehiago eman du egoera horretan, 2017ko bigarren hiruhilekoan baino %2,6 gutxiago. 2009an, aldiz, epe luzeko langabezia soil-soilik %19,2koa zen eta haziz joan zen 2014an %61,9ra iritsi arte. Lurraldeka, aipatu behar da Nafarroan igotera egon dela, duela urte bat %46,1ekoa zen eta aurtentzen %53, EAEn aldiz, joera aurkakoa da, %5,4 murriztu da.

3. Zerbitzuen sektorea gorantz

Atal honetan lan sektoreei erreparatuko zaio. Hiruhileko honetan, azken urteetako joera berdina gertatu da: zerbitzuen sektorea da diferentzia handiz gehien igo dena. Gainontzeko sektoreek ez dute izan aldaketa handirik hurrengo lerroetan ikusiko den moduan.

Datuei erreparatuz, lehenengo sektorean 23.100 biztanleria okupatu (%1,9) aritu da, eraikuntzan 69.200 (%5,7), industrian 278.000 (%22,9) eta zerbitzuetan 842.400 (%69,5).

Enplegua sektoreka HEHn 2018ko bigarren hiruhilekoan

	2018ko 2. hiruhilekoan	
	Pertsonak	%
Nekazaritza	23.100	1,9
Eraikuntza	62.200	5,7
Industria	278.000	22,9
Zerbitzuak	842.400	69,5
Guztira	1.212.700	100

Iturria: INE


Pasa den urteko datuekin alderatuz, nekazaritzan eta industrian eman da beherakada, bai okupatu zenbatekoan eta sektoreen ehunekoan ere. Nekazaritzan, 25.400 pertsonatik 23.500era murriztu da okupatu kopurua eta industrian, 283.400tik 278.000ra.

Eraikuntzan nolabaiteko igoera gertatu da, 64.000 izan ziren okupatuak 2017ko bigarren hiruhilekoan, aurtentzen kopuru hori 5.200 pertsonatan igo da 69.200 pertsonara heltzeraino. Aipatutako moduan zerbitzuetan igo da nabarmen okupatutako kopuru handiena, 810.200etik 842.400era, hain zuzen.

Azken urteetan sektoreetan egondako bilakaera aztertzea garrantzitsua dela uste dugu. Horretarako 10 urteren buruan egon diren aldaketak alderatuko dira eta ea honek krisiarekin erlazioa duen edo ez aztertuko da laburki:

Duela hamar urtetatik bai lehen, zein bigarren sektoreetan (nekazaritza, industria eta eraikuntza) langile kopurua murriztu egin da. Nekazaritzan eta industrian egondako beherakadak leunagoak izan dira, baina eraikuntzan egondako murrizketak nabariagoak izan dira. Zerbitzuen sektorean, ordea, guztiz kontrako gertatu da: ia sei puntuko gorakada izan du sektore honek.

Enplegua sektoreka 2013 eta 2018 artean



Fuente: SEPE

Adierazitako informazioa eta lanpostu prekarioen erlazioa kasualitatea edo kausalitatea da? ELAK behin eta berriro salatu duen moduan, zerbitzuetako lan kalitatea eskasagoa da, hortaz zerbitzu sektorean lan egiten duen pertsonen gorakadak eta prekarietatearen handitzeak erlazio zuzena dauka. Hurrengo atalean ikusiko da nolakoa den prekarietate maila.

4. Prekarietatea

Prekarietate izena ematen dion atal honek bi azpiatal ditu, batetik, kontratuen tenporalitatea eta partzialitatea analizatuko duena, zeinak 2018ko bigarren hiruhilekoaren kontratuen kalitatea neurtzen duen; bestetik, aldiz, prestazioen nondik norakoak analizatuko dira.

4.1.) Kontratuak, lanpostuen kalitate eskasa

2018ko bigarren hiruhilekoan HEHn egin diren 364.118 kontratu ingurutik 129.827 lanaldi partzialekoak izan dira (%35,7) eta 333.469 tenporalak edo aldi baterakoak (%91,6); gogora dezagun kontratu partzialak aldi-baterakoak direla hein handi batean.

Kontratazioa HEHn 2018ko lehen hiruhilekoan

	Kontratuak	Tenporalitatea	Partzialak
Orokorra	364.118	%91,6	%35,7
Gizonak	184.897	%91,3	%23,4
Emakumeak	179.221	%91,9	%48,3

Iturria: SEPE

Tenporalitatearen kasuan, bai EAEn zein Nafarroan antzerako datuak antzeman daitezke. Hiru puntuko desberdintasuna dago bata eta bestearen artean, kasu honetan Nafarroako datuak txarragoak dira, %93,7 izan dira bigarren hiruhileko kontratu tenporalak, EAEn aldiz %90,8. Partzialitateari dagokionez, EAE eta Nafarroaren arteko aldea dexente igotzen da, Nafarroak %26,8ko partzialitatea dauka, EAEn zenbateko hori %39ra igotzen da.


Aipatu diren datuen balorazioa ona ez dela konturatzearreza da. Apiril eta ekainaren artean egon diren kontratuen kalitatea ez da batere ona, partzialitatearen aldetik, baina, batez ere tenporalitatearen aldetik. Hortaz, aztertu ditugun adierazlearen arabera lan kontratu berriak oso prekarioak direla esan dezakegu, honek langileen pobrezia normalizatzea eraginez.

4.2.) Prestazioak, gero eta gutxiago

Langabeziagatiko prestazioak, 2018ko ekainean, inoiz baino txikiagoak izan dira. Atal honetan ikusiko den bezala, hartzaile eta langabe bakoitzeko gastatu den diru kopurua azken urteetako txikiena izan da eta horretaz gain, prestazio gabe geratu diren langabeen portzentajea inoiz baino altuagoa.

Ondorengo grafikoek aurtengo eta 2013ko datuak adierazten dituzte. 2018ko ekainean HEHko langabeen %60,8 prestazio gabe geratu da; %39,2ak jaso ditu langabeziagatiko prestazioak, hau da, 152.539 langabetik 59.758k, horietatik 37.180k (%24,4) kontribuzio mailako prestazioak jaso dituzte eta 22.578k (%14,8) kontribuziozkoak ez direnak. Datua okerragoa izan da EAEn, Nafarroan baino, %37,6ak bakarrik jaso izan duelako prestazioa, Nafarroan, aldiz, %45,1ek jaso du. 2013 urtetik egoera Hego Euskal Herri mailan asko okertu da, 2013ko ekainean prestazio gabeko langabeak %46,7 ziren eta langabeziagatiko prestazioen estaldura langabeen %53,3koa zelako; %60,3ak jasotzen zituen Nafarroan eta %51,2ak EAEn.

Langabeen estaldura mota HEH




Iturria: SEPE

Aurten apirila eta ekaina artean 59.814.000 euro bideratu dira aipatutako prestazio horietara, hartzerikodun bakoitzeko 1.001 euro batez bestean, 2013an kopuru hori dexente handiagoa izan zen, 1.133 eurokoa, hain zuzen.

Langabetu bakoitzeko batez besteko gastuari erreparatzen bazaio aldeak are nabarmenagoak dira. Aurten 392 eurotako izan da langabe bakoitzean gastatutakoa, 2013an baino askoz gutxiago, 603 euro izan baitziren urte hartan.



Hartzaileko eta langabeko prestazioen batez besteko gastua



Iturria: SEPE

Honek guztiak agerian uzten du prestazioen gainbehera, alde batetik, eta prestazioen estaldura mailaren gutxitzea, bestetik. Gastu publikoaren murrizketek eragin dute egoera hau, langabe ziaगतिको prestazioetan ere murrizketak eman baitira. Datu modura, 2013ko ekainean ia 74 milioi euro gehiago bideratu ziren prestazio hauetara.

5. Gazteen egoera prekariora

Biztanleria aktibo gaztea (16 eta 24 urte bitartekoa) 76.200 pertsonakoa izan da, urtebete lehenago baino 6.500 gehiago. Gazteen artean %54,6 izan dira gizonetako aktiboak, gainontzekoak emakumeak. Erkidego bietan antzeko egoera eman da.

Gazteen artean okupazioa ere igo egin da 55.200 pertsona izateraino, pasa den urtetik 5.300 gazte okupatu gehiago daude. Horietatik 29.500 gizonak izan dira eta 25.900 emakumeak. Baita ere duela urtebete baino 5.300 soldatapeko gazte langile gehiago daude, 53.700 hain zuzen. Okupatutako gazteetatik %97,3 dira soldatapekoak. Datuak hoberrantz doazen arren, hobekuntza hau oso astiro doa.

Gazteen langabezia kezkatzeko moduko arazoa da. 21.000 gazte daude oraindik langabezia egoeran, gainera egoerak hobetu beharrean, pasa den urtean baino 1.000 langabe gehiago daude. Krisia hasi zenetik 10 urte bete dira irailean eta Hego Euskal Herrian gazteen langabezia %27,6an kokatzen da, hau da 4 gaztetatik bat langabezian dago. Arazo estruktural hau Nafarroan gehiago somatzen da, %31,2 baita langabetuen kopurua, ia hirutik bat, EAEn %26,3koa da, hain zuzen.

6. Genero diskriminazioa

4.1 puntuan ikusi den bezala, kontratazioan ematen den aldi-baterakotasuna oso parekoa bada ere, gizon eta emakumeen artean, partzialitatea askoz handiagoa da emakumeengan: gizonari egin zaizkien kontratu berrien %23,4 dira partzialak, emakumei egiten zaizkienak, berriz, %48,3. Genero diskriminazioa argi ikusi daiteke datu hauetan, batez ere Nafarroako gizonak eta EAeko emakumeak alderatzen baditugu. Gizonak %17,2ko partzialitatea dute eta EAeko emakumeek %52,7.

Emakumeak jasaten duten partzialitate honen arrazoietako bat, emakumeak zerbitzu pribatuaren gehiengoa direlako gertatzen da. Aurretik aipatu den moduan, hori prekaritatearen seinale da. Emakumeak zerbitzuetan izan ezik, beste hiru sektoreetan gutxiengo dira alde handiarekin: nekazaritzan %19,9, eraikuntzan %11,8 eta industrian %25,2. Zerbitzuetan, ordea, emakumeak biztanleria okupatuaren %59,2 dira. Gazteen kasuan ere gauza bera gertatzen da, gizonak gehiengo handia dute: nekazaritzan %72,7, eraikuntzan ia %100 eta industrian %90,7. Zerbitzuetan, ordea, emakume gazteak biztanleria okupatuaren %58,1 dira.

Epe luzeko langabezian ere emakume gehiago dago, gizonak %49,9 diren bitartean, emakumezkoak %56 pairatzen dute.

7. HEH Europako azken postuetan

Hego Euskal Herriko egoera Europako herrialdeekin alderatzean, hurrengo grafikoetan ikusi daitekeen bezala, azken postuetan agertzen da. Horrela, temporalitateari dagokionez, Europako hirugarren maila altuena dugu HEHn (%25,4), Estatu espainiarraren (%26,2) eta Montenegroren (%30,1) atzetik. Kontrako aldean, temporalitate baxuena duten lurraldeak Lituania eta Errumania (%1,2) eta Baltikoko estatuak dira (Estonia eta Letonia). Europar Batasuneko batez bestekoa %13,9 da, Hego Euskal Herrikoa baino %11,5 gutxiago.



9. BPGk handitzen jarraitzen du

Barne Produktu Gordinaren hazkundera nabarmena izaten ari da Hego Euskal Herrian. Aurreko urteko epealdi berarekin alderatuz, 2018ko bigarren hiruhilekoan %2,9 hazi da EAEn eta %3,4 Nafarroan. Nafarroan adierazleak hazten jarraitzen duen bitartean, EAEn igoera leuntzen hasi da. 2017az geroztik, Nafarroako hazkundera EAEn baino altuagoa izaten ari da, azken lauhilabetekoan tartea handitu egin da, puntu erdiraino helduz.

BPGaren urte arteko hazkundera

	2017				2018	
Hiruhilabetea	I	II	III	IV	I	II
EAE	2,8	2,9	3	3	3,1	2,9
Nafarroa	3,1	3,3	3,2	3,2	3,3	3,4

Iturria: Eustat, IEN



Hilaren puntako gaia:

Argindarraren merkatua elektriken negozioa

Argindarraren prezioaren etengabeko gorakada arazo bilakatu da gizartearen gehiengoarentzat. Argindarraren prezioa urteko maximora heldu da irailan, 75,93 euro orduko megawatia (Mwh). Gainera, 2017an Estatu espainiarrean argindarraren prezioa, zergak kontuan hartuz gero, Europako altuenetakoa izan zen, baina are altuagoa zergak kontuan hartu gabe. Honen eragina honakoa izan da: fakturei aurre egin ezin izateagatik 4,6 miloi pertsona dira jada pobrezia energetikoa sufritzen ari direnak Estatuan.

Doktrina dominanteak prezioen gorakada justifikatzeko erregai fosilen kostu handiak eta CO2 emisio eskubideen izugarritzko garestitzea (urte honetan hirukoitzu egin da) jartzen ditu erantzule gisa. Baina gure iritziz, arazoa ez da koiunturala, arazo sistemikoa da 1998an duena jatorria, sektorearen liberalizazioa eman zen urtean.

1997 urtean sektore elektrikoak liberalizazio prozesuari ekin zion Europar Batasunaren markoaren barruan. "Marco Legal Estable" moduan ezaguna zen garaia (1988tik 1997ra iraun zuena), arau eta legeen bitartez zegoen arautua. Estatuak araututako marko bat zen oinarrian, Estatuak berak gain hartzen zuen ardura sektorea antolatu eta planifikatzeko. MLE garaian tarifa elektrikoak urtero %2,8 erritmoan hazi zen bitartean, inflazioa %4,8an ezarri zen. Hortaz, tarifa elektrikoaren kostu erreala urtero %2 murriztu zen, honela mesede eginez familiei.

Sektore elektrikoaren 54/1997 legeak, Estatu espainiarrean sektore honen liberalizazio prozesua abiarazten du, merkatu libreko mekanismoak sartzeko helburuarekin. Garai hartatik aurrera, argindarra oinarritzko ondasun bat izateak negozioa egiteko produktu bat izatera igarotzen da. Sektorearen pribatizazioaren ostean, hurrengo faktoreak ezarriko dute bukaerako prezioa:

- Lehenik, bidesariak eta sarrera tarifak daude, sare elektrikoaren sarbide kostuak ordaintzeko fakturaren parte finkoa dira, hau da, hornikuntza puntuetara energia garraiotzeagatik ordaindutako prezioa. %40ko pisua du eta gobernuak arautzen du, baina Estatuko geografia osoa banatzen duten bost konpainia elektririk kudeatzen dute eta horregatik irabaziak konpainia horienak dira. Zati finkoari esker, konpainiek errentagarritasuna ziurtatzen dute.

- Bigarrenik, zati aldagarria, handizkako prezio edo pool moduan ezagutua dena. Handizkako merkatu elektrikoan komertzializatzaileek hurrengo egunean etxeetan, enpresetan eta abar erabiliko den energia erosten dute. Bukaerako prezioaren %35eko pisua du eta prestatua dago elektriken diru sarrerak ahalik eta handienak izateko.
- Azkenik, %25a BEZa eta elektrizitatearen zerga dira.

Jarraian, sektore energetikoaren pribatizazioaren emaitzak aztertuko dira. Horretarako, batetik, erreferentzia modura INEk egindako EPF(Encuesta de Presupuestos Familiares) hartuko da etheen batez besteko gastua ikusteko. Bestetik, Eurostatek sei hilabetero ematen dituen zifrak, orduko kwh ren prezioa ikusteko eta Europar Batasunarekin alderaketa egiteko.


EPF datuen arabera, Estatu espainiarreko etheen urteko batez besteko gastua argiaren fakturan 745,9 eurotan kokatu zen 2017an. 2006 urtetik %63 garestitu da. 2006an, argindarrari bideratutako gastua 457,53 eurotan kokatu zen. KPI, aipatutako urteetan %17,8 igo da, hortaz, elektrizitatearen prezioaren igoera hiru aldiz baino gehiagoz igo da inflazioarekin alderatuz. Igoera honen ondorioz, etxebizitza askori ezinezko egin zaie ordaintzea argiaren faktura. Kontutan izan behar da, gainera, 2010etik kontsumo elektrikoak etxeetan nabari murriztu dela, oraindik larriagoa egiten duena faktura elektrikoaren areagotzea.

Eurostatek (Europako Estatistika Institutua) elektrizitatearen batez besteko prezioak kalkulatzeko kontsumo banden arabera (bost bizitoki kontsumo). Erreferentzia modura, 2.500 kwhtik 5.000 kwhra doan kontsumo banda aztertzea aukeratu dugu, Estatu espainiarrean 2017an etheen urteko batez besteko kontsumoa 2.816,5 kwh izan zelako.

Europar Batasuneko elektrizitatearen batez besteko kilowatio/orduko prezioa 0,2048an kokatu zen 2017ko bigarren erdian. Estatu espainiarrean prezio hori EBean baino altuagoa izan zen, kostua 0,2177 euro, hain zuzen. Europar Batasuneko seigarren prezio garestiena. Europar Batasunean prezioa 2007tik %30,9 igo zen bitartean, Estatu espainiarreko errealtatea nabarmenki okerragoa izan zen, prezioa %55,5 areagotu zelako urte hartatik.



Kwh/orduko prezioa (2.500 eta 5.000 kwh arteko kontsumoa)




Iturria: Eurostat

Lobby elektrikoak eta bere akolitoez behin eta berriz errepikatzen digute gehiegizko zerga dagoela elektrizitatearen fakturan. Ikusiko dugu ea zer dioten estatistikek Europar Batasunarekin alderatzean, eta egia baden edo ez.

Zergak fakturatik baztertzearan, Estatu espainiarra Europar Batasuneko hirugarren garestiena da kontsumo banda horretan. Grafikoan ikusi daitekeen moduan, 2017an 0,2177tik 0,0465 zergak ziren Estatuan, hortaz zergek %21,36ko pisua izan zuten. Ordea, EBeko errealitatea oso desberdina izan zen, 0,2048 euroetatik, 0,0828 zergak ordaintzera bideratu ziren, proportzio honek (%40,43) Estatu espainiarrekoa bikoizten du.

Kwh/orduko prezioa 2017ko bigarren sei hilabeteetan (2.500 eta 5.000 kwh arteko kontsumoa)



Iturria: Eurostat

Zergarik gabe, Estatu espainiarreko kwhren prezioa (0,1712) Europako batez besteko prezioa (0,122) baino %40 altuagoa izan zen. Aitzitik, zergak %43,9 murriztagoak izan ziren.

Gainontzeko kontsumo bandetan errealitatea ez zen izan oso desberdina, Estatu espainiarrean urteko kontsumo osoko gutxiengo kontsumoa zituzten

etxeetan (k<1.000 kwh) 0,57 ordaindu zen kwh, Europako batez bestekoa (0,33) baino %72,7 gehiago. Kontsumoa handiagoa zenean, Estatuaren eta EB arteko diferentzia murrizten zen. 5.000 Khwko kontsumotik aurrera Europar Batasuneko batez besteko mailara berdindu zen.

Estatu espainiarren eta EBren arteko alderaketa kontsumo bandetan, 2017ko 2. sei hilabetea

	C<1.000	1.000<c<2.500	2.500<c<5.000	5.000<c<15.000	15.000<c
Est. espainia.	0,57	0,27	0,22	0,19	0,17
EB-28	0,33	0,23	0,21	0,19	0,18

Iturria: Eurostat

Ondorioztatu dezakegu egitura tarifario hau sozialki erregresiboa dela eta neurri askoz handiagoan da Estatu espainiarrean. Batetik, diru sarrera gutxien dituzten etxeek elektrizitate gutxiago kontsumitzen dute, baina prezio garestiagoa ordaintzen dute diru sarrera altuenak dituztenak eta gehien kontsumitzen dutenak baino. Bestetik, elektrizitate gehien gastatzen dutenak saritzen dira, kontutan izan gabe energia sortzeko orduan ingurumenari egiten zaion kaltea.

Sistema horren emaitza, elektriken mozkinen aregotzea izan da, kontsumoaren eskaera murriztu arren mozkinen gorakada edukitzen jarraitzen dute. Estatu espainiarreko hiru konpainia handienak, Iberdrola, Endesa eta Gas Natural Fenosak, 5.627 milioi euroko mozkinak izan zituzten 2017an, aurreko ekitaldian baino %3 gehiago. Mozkin horiek izan zituzten exentzio fiskalak aplikatu zizkietelako eta horregatik ez zuten ordaindu ia zergarik. Gogoratu dezagun egun espainiar estatuan ordaintzen den sozietateen gaineko zergen tipo nominala %25ean dagoela kokatua, hala ere, korporazioek honako kopuru hauek baino ez zituzten ordaindu 2016an: Iberdrolak 43,7 milioi euro (mozkinen %3,2); Endesak 82 milioi (%6,1) eta Gas Natural Fenosak 84 milioi (%8,5).

Datu hauek ezaguturik, argi geratzen da, pertsonen oinarriko beharrezanekin jokatu aberasteaz gain, ordaindu beharko luketena baino nabarmen gutxiago ordaintzen diotela Estatuari. Urteetan zehar aldatzen joan diren legeek ahalbidetu dute hori, modu batean edo bestean mesedegarri izan direnak konpainia elektrikoentzako. Sektorea liberalizatu duten lege horiek, aipatutako konpainien postuetan bukatu duten buruen alderdiek eraman dituzte aurrera.

Laburbilduz, ate birakari famatuak izan dira egoera honetara heltzen lagundu dutenak.

Sistema elektriko baten helburua gizarteak duen energia elektrikoaren beharrianak asetzea izan beharko litzateke. Horretarako, azterketa bulegotik hurrengoa planteatzen dugu:

- Soluzioa burujabetza energetikotik igarotzen da. Horretarako beharrezkoa da sozializatzea energiaren ekoizpena, energiaren garraioa eta energiaren komertzializazioa.
- Gutxien kontsumitzen dutenei mesede egingo liekeen araututako prezio sistema tarifario bat ezartzea eta gutxieneko tarifa bat ezarri bizitzeko minimoa izango litzatekeena.
- Sistema elektrikoaren aldaketa %100 berriztagarria posible izateko, batetik, alde batera utzi behar dira erregai fosila eta nuklearra, eta bestetik kontsumoaren murrizketa nabarmena eman behar da.

